9/2025 EBAZPENA

Espedientea: RMT 9/2025

BATZORDEBURUA: Maria Eugenia Mate Mendieta

KIDEA: Nerea Garcia Rodriguez.

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak (lehen aipatutako kideek osatzen dute) EBAZPEN hau eman du Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenaren aurka. Ebazpen horrek informazio publikoa eskuratzeko bere eskaerari erantzuten dio.

María Eugenia Maté Mendietak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

<u>AURREKARIAK</u>

1.- 2025eko urriaren 13an, informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zuen:

*“Hortaz, Atlántida proiektua dela-eta <u>Labeinek Lemoizko instalazioei buruz egindakoazterlanaren/txostenaren SARBIDEA eta KOPIA berriro eskatzen ditut</u> Sabin Arana Gorostiaga jauna Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Formakuntza diputatua zen garaian.”*

2.- Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenaren bidez ez zen

RESOLUCIÓN 9/2025

Expediente: RMT 9/2025

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

VOCAL: Nerea García Rodríguez.

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por contra la Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia que da respuesta a su solicitud de acceso a información pública.

Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la Comisión:

<u>ANTECEDENTES DE HECHO</u>

1.- En fecha 13 de octubre de 2025 presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública:

*“Por tanto, <u>solicito nuevamente ACCESO Y COPIA del estudio/informe elaborado por Labein</u> sobre las instalaciones de la central nuclear de Lemoiz encargado en la época en la que el señor Sabin Arana Gorostiaga era el Diputado de Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia para poder analizar, estudiar e investigar adecuadamente los datos correspondientes para el desarrollo de la investigación académica de la tesis en curso”.*

2.-. Mediante Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad se inadmitió la solicitud de acceso a la

onartu eskatutako informazio Publikoa eskuratzeko eskaera *"argi eta garbi errepikakorra delako aurretik eskatutakoari dagokionez (SAIP 00038), Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluan xedatutakoa aplikatuz"*.

3.- Ebazpena azaroaren 3an jakinarazi zen, eta azaroaren 9an erreklamazioa aurkeztu zuen gardentasunaren arloan. Batzorde honetan idazkia jaso ondoren, 9/25 zenbakia esleitu zitzaion.

Bere arrazoietan adierazten du 2025eko urriaren 13an eskatu zuela Labeinek Lemoizko zentral nuklearraren instalazioei buruz egindako txosten bat eskuratzeko, eta lehen 2025eko maiatzaren 22an planteatutako eskaera errepikatu zuela, zeina ukatu egin baitzitzaion Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- Txostena emateko unean Lemoizko zentral nuklearra desegiten ari zela eta txostenak Atlantida proiekturako gorde nahi ziren zentral nuklear baten hainbat eraikin eta instalazioei buruzko datuak dituela. Erreklamaziogileak adierazi du Atlantida proiektua dela bere ikerketa akademikoaren xedea, eta, horregatik, beharrezkotzat jo du txostena eskuratzea.

- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean, "*1/2016 Foru Araua*") 21.2.a) artikulua; horren bidez, informazio publikoa eskuratzeko aukera ukatzen da segurtasun publikoko arrazoiengatik. Horri dagokionez, adierazi du informazioa errespetuz eta zuhurtziaz tratatuko litzatekeela, eta beharrezkotzat jotzen diren segurtasun-eskakizun eta -neurri guztiak betetzeko konpromisoa hartuko lukeela.

- Azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituen apirilaren 28ko 8/2011

información pública *"por ser manifiestamente reiterativa con respecto a lo ya solicitado y denegado con anterioridad (SAIP 00038), en aplicación de lo dispuesto en el artículo 22.e) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia"*.

3.- La Resolución fue notificada el día 3 de noviembre y el día 9 de noviembre presentó reclamación en materia de transparencia. Recibido el escrito en esta Comisión, se le asignó el número 9/25.

En su motivación señala que el 13 de octubre de 2025 solicitó acceso a un informe elaborado por Labein sobre las instalaciones de la central nuclear de Lemoiz reiterándose en la solicitud anteriormente planteada el 22 de mayo de 2025 que le fue denegada mediante Resolución del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad en base, según señala, a las siguientes razones:

- Que en el momento de emisión del informe la central se estaba desmantelando y el informe tiene datos sobre edificios e instalaciones de una central nuclear que se querían conservar para ser destinados al proyecto Atlántida. La reclamante señala que el objeto de su investigación académica es el proyecto Atlántida y por ello considera necesario acceder al informe.

- El artículo 21.2.a) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "*Norma Foral 1/2016*") que permite denegar el acceso a la información pública por razones de seguridad pública. Al respecto señala que la información sería tratada con respeto y prudencia, comprometiéndose a cumplir con todos los requerimientos y medidas de seguridad que se consideren necesarias.

- El artículo 15.2 de la Ley 8/2011, de 28 de abril, por la que se establecen medidas para la

Legearen 15.2 artikuluak xedatzen duenez, herri-administrazioek azpiegitura estrategikoei buruzko datuen konfidentzialtasuna bermatuko dute. Uste du agindu hori ez dela aplikatzekoa, azpiegitura ez zelako martxan jarri eta desegin egin zelako.

protección de las infraestructuras críticas, que dispone que las administraciones públicas velarán por la garantía de la confidencialidad de los datos sobre infraestructuras estratégicas. Considera que dicho precepto no es de aplicación al tratarse de una infraestructura que no llegó a ponerse en marcha y fue desmantelada.

Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpenak adierazitako aintzat hartuz, erreklamatzaileak uste du ez duela betetzen 1/2016 Foru Arauaren 18.1, 21.2 eta 21.3 artikuluetan xedatutakoa, ez delako benetako kalte eraginkorrik egiaztatu, gatazkan dauden interesak behar bezala haztatu ez direlako, eta ez delako proportzionatua eta ez delako egokitzen informazio publikoa eskuratzeko mugak aplikatzearen helburuarekin.

Refiriéndose siempre a la denegatoria Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial, la reclamante entiende que no cumple con lo dispuesto en los artículos 18.1, 21.2 y 21.3 de la Norma Foral 1/2016 al no haberse acreditado un perjuicio real y efectivo, no haberse realizado la debida ponderación de los intereses en conflicto y no ser proporcionada y ajustada a la finalidad a preservar la aplicación realizada de los límites al acceso a la información pública.

Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 2.c) artikuluan ere oinarritzen da. Izan ere, horren helburuetako bat da ikerkuntzak sortutako datu, dokumentu eta emaitzetara sarbide librea erraztera bideratutako ekimenak sustatzea da.

Se basa también en el artículo 2.c) de la Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación, uno de cuyos objetivos es la promoción de iniciativas orientadas a facilitar el libre acceso a los datos, documentos y resultados generados por la investigación.

Eta, azkenik, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14.2 eta 16. artikuluetan xedatutakoa gogorarazten du. Lehenengoak justifikazioaren eta proportzionaltasunaren printzipioa jasotzen du, informazio publikoa eskuratzeko mugak aplikatzeko agintzen baitu, eta bigarrenak, berriz, sarbidea partzialki emateko aukera jasotzen du.

Y, finalmente recuerda lo dispuesto en los artículos 14.2 y 16 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. El primero recoge el principio de justificación y proporcionalidad en ordena a la aplicación de los límites al acceso a la información pública y el segundo contempla la posibilidad de que el acceso se conceda de forma parcial.

4.- Erreklamazioa jaso ondoren, batzorde honek Ekonomia Sustatzeko Sailari eskatu zion horren berri emateko eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerari buruzko espedientearen kopia bidaltzeko.

4.-Una vez recibida la reclamación, esta Comisión solicitó al Departamento de Promoción Económica que informara respecto a aquella y remitiera copia del expediente relativo a la solicitud de acceso a información pública.

Egindako txostenean honako hau egiaztatzen

En el informe emitido se constata lo siguiente:

da:

1.) informazio publikoa eskuratzeko hiru (3) eskaera aurkeztu ditu "*Lemoizko zentral nuklearrerako Atlantida, Zientzia, Teknologia eta Ingurumenaren Museoa Proiektua*" ri dagokionez.

1º) ha presentado tres (3) solicitudes de acceso a información pública en relación con el *"Proyecto Atlántida, Museo de la Ciencia, Tecnología y Medio ambiente para la central nuclear de Lemoiz"*.

Lehenengoa 2025eko martxoaren 21ean aurkeztu zen, eta Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 406/2025 Ebazpenaren bidez ebatzi eta onartu zen.

La primera fue presentada el día 21 de marzo de 2025 y resuelta y admitida mediante Resolución 406/2025, de 10 de abril, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial.

Bigarrena, 2025eko maiatzaren 22an aurkeztutakoa, segurtasun publikoko arrazoiengatik ukatu zen Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpenaren bidez.

La segunda, presentada el día 22 de mayo de 2025, se denegó por razones de seguridad púbica mediante Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial.

Eta hirugarrena, 2025eko urriaren 13an aurkeztutakoa, ez zen onartu Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenaren bidez.

Y la tercera, presentada el día 13 de octubre de 2025, fue inadmitida por reiterativa mediante Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial

2) Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpenaren bidez ebatzitako irispidea ukatzea da erreklamazioaren xedea (ekainaren 13an jakinarazi zen Ebazpen hori), eta ez

Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenaren bidez ebatzitakoa (horrek ez du onartzen behin eta berriz errepikatzeagatik). Ebazpen horren bidezkotasunaren aurka ez da ezer alegatzen.

2º) La reclamación tiene por objeto la denegación del acceso resuelta por Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial, notificada el 13 de junio, y no la Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial, inadmitida por reiteración, contra cuya procedencia nada se alega.

Baina Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpena irmo bihurtu zen, ez baitzitzaion errekurtsorik jarri 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan aurreikusitako hilabeteko

Pero la Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial devino firme al no haber sido recurrida en el plazo de un mes previsto en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016.

epean.

Hala ere, Ekonomia Sustatzeko Sailak emandako txostenak, ukatzeko Ebazpenaren edukia berretsiz, erreklamazioaren argudio guzti-guztiak aztertzen ditu.

No obstante, el informe emitido por el Departamento de Promoción Económica, ratificándose en el contenido de la Resolución denegatoria, analiza todos y cada uno de los argumentos de la reclamación.

1) Egokia da apirilaren 8ko 8/2011 Legean aurreikusitakoa aplikatzea; izan ere, lege horren eranskinean industria nuklearra sektore estrategikotzat jotzen delako eta Labein eta Neotek Nervión enpresaren 2002. urteko txostenean une horretan zegoen central nuklear bat aipatzen da, nahiz eta gaur egun ez egon.

1º) Resulta oportuno aplicar lo previsto en la Ley 8/2011, de 8 de abril, porque en su anexo se identifica la industria nuclear como sector estratégico y el informe de Labein y Neotek Nervión de 2002 se refiere a una central nuclear existente en ese momento; y ello con independencia de que no exista en la actualidad.

2) Haztapen faltari dagokionez, adierazten da ukatzeko Ebazpena eman aurretik kontuan hartu zela erreklamatzaileari Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 406/2025 Ebazpenaren bidez emandako informazioa eta eskaeraren helburua, ukatzeko Ebazpenaren edukitik bertatik ondorioztatzen den bezala (lehenengo paragrafoa).

2º) Respecto a la falta de ponderación, se señala que antes de adoptar la Resolución denegatoria se tuvo en cuenta la información que ya había sido aportada a la reclamante mediante la Resolución 406/2025, de 10 de abril, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial y la finalidad de la solicitud., como se infiere del propio contenido de la Resolución denegatoria en su párrafo primero.

3) Gainera, kalte erreal eta eraginkortzat jotzen da datuen gaineko kontrola, biltegiratzea eta erabilera galtzea, behin datuak eskuratzea baimenduta, nahiz eta eskatzailea konfidentzialtasun-betebeharra duen ikertzaile bat izan.

3º) Además, se considera que el perjuicio real y efectivo es la pérdida de control sobre los datos, su almacenamiento y uso una vez permitido el acceso, por mucho que la persona solicitante sea una investigadora sometida al deber de confidencialidad.

4) Ukatzeak ez zuen Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen helburua urratu, eta ez da ikerketa-lana eragozten, Nestor Basterretxeak Atlantida proiektuan parte hartzeari buruzko informazioa Ekintzailetzaren, Talentuaren eta Enpresa Lehiakortasunaren zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 406/2025 Ebazpenean eman baitzitzaion.

4º) La denegación no supuso conculcación del objetivo de la Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación, ni se impide la labor de investigación ya que la información relativa a la participación de Néstor Basterretxea en el proyecto Atlántida le fue facilitada en la Resolución 406/2025, de 10 de abril, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial.

5) Azkenik, txostenaren edukia partzialki eskuratzeko aukerari dagokionez, ez zen onartu, alderdi ez-nuklearra ez zelako erreklamatzaileak eskatutakoa, eta haren

5º) Finalmente, respecto al posible acceso parcial al contenido del informe, no fue concedido ya que la parte no nuclear no era lo solicitado por la reclamante ni su contenido

edukiak ez zuelako zerikusirik eskaeraren xedearekin. Irizpide hori egokitzat jotzen da, hirugarren eskaera egitean eduki osoa errepikatu baitzuen.

tenía relación con el objeto de la solicitud. Este criterio se entiende adecuado ya que al formular su tercera solicitud se reiteró en el contenido completo.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Lehena.- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean *"1/2016 Foru Araua"*) 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko empresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu- araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Bigarrena.- Lehen aipatutako 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio Publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluaren arabera, honako hau da: *"(...) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren*

Primero.- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia. (en adelante *"Norma Foral 1/2016"*).

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016"*.

Segundo.- La Norma Foral 1/2016 precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: *"( ... ) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma*

*eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)*".

Arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera "*publikoarekin*" lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) Foru Arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

Beraz, pertsona fisikoek eta juridikoek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango dute. Baina eskubide hori ez da mugagabea. Izan ere, lege-testu bereko 20., 21. eta 22. artikuluek informazio-eskaerak onartzea egokia ez den zenbait kasu aipatzen dituzte, hala nola, horiek egiten ari direlako edo osagarriak edo lagungarriak direlako; edo ez da bidezkoa eskatutako informazioa ematea, dela datuak babesteko eskubidea gailentzen delako, dela informazio-eskubidea baliatzeko beste muga batzuk daudelako.

Hirugarrena.- 1/2016 Foru Arauaren 21. artikuluaren arabera, informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko mugak gardentasuna arautzen duen legeria orokorrean ezarritakoak izango dira, bi dimentsiotan: publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Laugarrena.- Erreklamazio honen xede den Ebazpena ez zen onartu behin eta berriz, 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, eta ezin zaio horri buruzko inolako gaitzespenik egin Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenari; izan ere, lehenago Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpenaren bidez ukatutako gauza bera eskatzen zen (Ebazpen hori 2025eko ekainaren 13an jakinarazi zen, eta

*Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones*".

La norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

Por tanto, las personas físicas y jurídicas podrán ejercer el derecho de acceso a la información pública. Pero, este derecho no es ilimitado. De hecho, los artículos 20, 21 y 22 del mismo texto legal señalan diversos supuestos en los que no procede admitir las solicitudes de información, por ejemplo, por estar en curso su elaboración o por tener carácter auxiliar o de apoyo; o no procede facilitar la información solicitada bien porque prevalece el derecho a la protección de datos o por concurrir otros límites al ejercicio del derecho a la información.

Tercero.-De acuerdo con el artículo 21 de la Norma Foral 1/2016 los límites al ejercicio del derecho a la información serán los establecidos en la legislación general que regula la transparencia, en su doble dimensión de publicidad activa y de derecho de acceso a la información pública.

Cuarto.- La Resolución objeto de la presente reclamación fue inadmitida por reiterativa al amparo de lo previsto en el artículo 22.e) de la Norma Foral 1/2016 y ningún reproche puede hacérsele en este sentido a la Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial ya que se solicitaba lo mismo que anteriormente fue denegado por Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial, notificada el día 13 de junio de 2025 y que devino firme al no haber sido

irmoa bihurtu zen, errekurtsorik aurkeztu ez zelako).

Ondorioz, ezetsi egin behar da jarritako erreklamazioa.

Bosgarrena. Hala ere, Ekonomia Sustatzeko Sailak emandako txostenak ez duenez inguruabar hori egiaztatu soilik, Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 579/2025 Ebazpenaren aurka emandako argudioei buruzko iritzia emateko ahalegina egin du, eta adierazi behar da egindako azterketarekin bat gatozela, gatazkan dauden interesak behar bezala haztatu direlako eta 1/2016 Foru Arauaren aginduak urratu ez direlako.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, transkribatutako Ebazpenean hartutako irizpidea errepikatuz, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Ezestea Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna bultzatzeko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 973/2025 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa, aurreko txostenaren zuzenbideko laugarren oinarrian adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA. Ebazpen hau erreklamatzaileari jakinaraztea, eta Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailetza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, eta Herritarreganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

objeto de recurso.

Procede en consecuencia desestimar la reclamación interpuesta por

Quinto. No obstante, ya que el informe emitido por el Departamento de Promoción Económica no se ha limitado a constatar dicha circunstancia sino que ha hecho el esfuerzo de pronunciarse sobre los argumentos esgrimidos contra la Resolución 579/2025, de 11 de junio, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial, cabe señalar que compartimos el análisis realizado al haberse ponderado adecuadamente los intereses en conflicto y no haberse conculcado los preceptos de la Norma Foral 1/2016.

Por todo lo cual, esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, reiterándose en el criterio adoptado en la Resolución transcrita, acuerda la siguiente:

RESOLUCIÓN

PRIMERO. Desestimar la reclamación presentada por contra la Resolución 973/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos señalados en el fundamento de derecho cuarto del informe que precede.

SEGUNDO. Notificar esta Resolución a la reclamante y comunicar a la Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica y a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

HIRUGARRENA. Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta bi (2) hilabeteko epearen barruan.

TERCERO. La presente Resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2025-12-29
Batzordekide titularra
Vocal titular

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2025-12-29
Idazkaria
El Secretario

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2025-12-29
Presidentea
La Presidenta